

Lehendakaria kurtso amaieran

Aiete Ikastetxean kurtsoari amaiera ematen.

2014 Eka 23

Ustekabe atsegina izan dugu aurten Aiete Ikastetxe Nagusian 2013-14 ikasturtearen amaieran. **Iñigo Urkullu** lehendakaria izan zen ekitaldiaren buru eta, gainera, berak egin zuen irakaspen hitzaldia. Haien inguruan, **Tomas Gomez-Acebo** Nafarroako Unibertsitateko Ikasleen Errektoreordeak, **Jose Roure** Ikastetxe Nagusiko Patronatuaren

lehendakariak, **Santiago Zayas**
Ikastetxe Nagusiko zuzendariak eta
Fernando Carazo ikastetxeko
ikasleen dekanok osatzen zuten
mahaia. Bertaratutakoen artean
Bakartxo Tejeria, Eusko
Legebiltzarreko lehendakaria,
aurkitzen zen.

Ekitaldiaren hasieran Santiago Zayas
Ikastetxe Nagusiko zuzendariak
hartu zuen hitza, eskerrak emanez
ikasleei Aieteren alde agertu duten
konpromisoagatik, Aieteko balore
funtsezkoenak zorrozki bete
baitituzte. Halaber, izaera heziketak
etaikusten ez diren gauzetan hazteak
duen garrantzia azpimarratu zuen,
emaitza akademikoak bezain
beharrezkoak eta unibertsitate
mailakoak. Ondoren, Iñigo Urkullu
lehendakariak bere irakaspen
hitzaldia eman zuen "Euskadi 2020,
herrialde proiektua". Bere hitzaldian
giza garapenerako eta haziera
iraunkor baterako Euskadi 2020

proiektua aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzaren estrategia laburbiltzen duena, eta giza baloreak omen dira proiektuaren zimendua azpimarratu zuen. Informazio gehiago **Irekia**-n aurki daiteke.

Gero, Ohorezko Bekak ezarri ziren, Ikastetxe Nagusiek ematen duten saririk handiena. Banan-banan irakurri ziren sari honetaz ikasleek nabarmendu nahi izan zituztenen azalpen biografikoak: **Patxi Aizpuru**, Urbano Jatetxeko sukaldaria; Eneko Goia, PNVko zinegotzia Donostiako Udalan eta **Juan Kruz**, elizbarrutiko Bikario Nagusia. Ohore honen bidez, ikasleekurtero eskertzen dituzte, Aieten bizi gabe, adoretu eta lagundu dieten pertsonak eta, batez ere, beren borondate erakutsi dietenak.

Eta azkenik europar curriculumak eman zieten unibertsitateko ikasketak bukatu dituzten ikasleei, eta, beraz, Ikastetxe Nagusia uzten

dutenei: **Miguel Arrieta Eguren,**
Fernando Carazo Melo, Fernando
Echániz Jutglar, Pol Falgueras
Peguera, Alvaro Fernández
González, Alejandro Sopeña
González-Aller eta Daniel Viteri
Baquerizo. Amaitu aurretik, Tomás
Gómez-Acebo errektoreordeak, hitz
batzuk esan ondoren, 2013-14
ikasturtea itxi zuen. Ekitaldi
akademikoaren amaiera gisa
Gaudeamus Igitur himnoa abestu eta
Aurrekua dantzatu zen
lehendakariaren eta bekadun
berrien ohorean.